

Lagun izoztua, kolega kongelatua

HOZKAILUA

Aktoreak: Patricia Urrutia, Ander Lipus.

Testua: Unai Iturriaga. Zuzendaria: Manex Fuchs.

Victoria Eugeniako Club Aretoa (Donostia).

Uztailaren 15a.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria



20 gradu inguru egiten zituen Donostian joan den larunbatean, ez oso sargori ere. Gauean hoztuko duen prebisiorekin, badaezpada jertse fin bat hartzen duzun egun horietakoa. Sartu ginen Victoria Eugeniako sotoan, hartu genituen posizioak lehen lerroan, eta minutu pare bat aski izan ziren, atxis, jertsea janzteko. Polarra zen aire girotu hura. “Nahita egingo zuten, antzezlanak *Hozkailua* dauka izena”, esan zenidan. Bagenekien Huts teatrokoak espezialistak direla gauza berriak probatzen, laugarren pareta hautsi, publikoa ere obraren parte egin, gauza horiek; baina ikusleak Kelvinator batean sartzea obra hasi aurretik... Ezin zuen izan, ez, ez zen beraien asmoa, handik gutxira gelditu zuten Siberiako haize makina, juxtu Patricia Urrutia eta Ander Lipus eszenatokia agertu baino lehen.

Eta agertu ziren hozkailu batekin. Hozkailu zahar bat, zikina, herdoildua, astunki garraiatzen zutena eszenatoki

atzean marra gutxi batzuekin iradokitzen zen *Mad Max* estiloko paisaia bate-tik. Jimmy dago hozkailu barruan, Maite eta Karlos protagonisten lagun izandakoa –bueno, lagun: kolega–, zeina Londresen hil den duela gutxi eta eskatu duen bere herrian lurpera dezatela. Baina ez dira herriaren izenaz akordutzen. Bilaketa hori inimizazio-bidaia bihurtuko zaie protagonistei edo, hobe esanda, ber-rinizazio-bidaia, 20 urte inguru zituzteneko oroitzapenetan oinarritzen baita antzezlanak.

Iraganaren errebisioa ardatz duten obrak ari dira izaten azken urteetan euskal teatroaren lan esanguratsuenetako batzuk –gogoratu Dejaburen *Gure bide galduak* eta *Arrastoak*, adibidez–; eta *Hozkailuaren* kasuan, esango nuke senidetuta dagoela marko horretan sar daitekeen beste lan batekin: Dejabuk berak, Le Petit Théâtre de Paine eta Artedramak 2010ean estreinatu zuten *Errauntsakekin*. Antzeko elementuak bie-

tan, hildako lagunarekin hasi, defuntuak oholtzan duen presentzia/ausentziarekin segi, heriotzak probokatzen duen lagunarteko harremanen berrikusketareino. Testuan ere bada kointzidentzia, obra hura Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzi baitzuten eta hau Iturriagak.

Baina oraingoan formatu txikiko lana da, zeinean lupa gehiago gerturatzen den protagonista bakoitzera, belaunaldi-erretratuari pisua kenduz –horren pintxo batzuk jan genituen arren, aktoreek Baldin Badaren edo Eskorbutoren kantak abestu zituztenean–. Lan punkagoa da hau, ondo aukeratutako lau akorderekin zuzenean zainera apuntatzen duena, Lipusen eta Urrutiaren arteko dialogo biziak lagunduta –hori da eszenatokia betetzea, 60 minutu airean pasatu ziren–.

Amaieran iragarri zuten udan atsedena hartuko dutela. Irailetik aurrera hasiko dira berriz Euskal Herriko antzokiak freskatzen. ■